

Horazioren bidaiak

Hasier Etxeberria Canales

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1996



Zumaiko Udala

*enskar
txanpa*



Horazioren bidaiak

Hasier Etxeberria Canales

Julene Azpeitia 9. Ipuin lehiaketa

1996

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia Ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Hasier Etxeberria Canales (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Rekarte zirujau famatua agertu zen ate zuri hartatik pasillora eta berak egin zien galdea eserlekuetan jarrita eta paretaren kontra zutik zeuden guztiei.

—Horazio Beristain hemen al dago?

Erietxe orotako pasilloetan bezala, merkatu eguna zirudien hainbeste atzera-aurrerarekin. Jendea erruz zebilen han, denak ere beraien senitartekoen berri jakin nahian. Batzuk kezkatu eta besteak hainbeste etortzerekin elkarren lagun zahar bihurturik. Bisitarien artean, etxeko bata eta pijamaz jantzitako batzuk ere bazebiltzan gora eta behera paseoan, gelan kabitu ezin eta. Berrogeita hamar urte inguruko gizon bat ere han zebilen noraezean galtzarbetik irteten zitzaion plastikozko hodi bat zintzilik. Inork begiratzen ez ziola uste zuenean, zirrikitu bat irekitzen zion azkeneko leihoari eta antsiar pizten zuen zigarroren bat, isilka. Hala ere, pasilloetan zebiltzan guztiek antzemana zioten, geratzen zitzaion bizitza apurrean ez zuela etsiko eta erretzen jarraituko zuela baita barrenak kiskaliko bazitzaizkion ere.

Isilik geratu ziren guztiak sendagilea bistatzen sumatu zutenean. Ez zion inork erantzun haren galderari. Ezbeharren batek sortutako aurpegi zurbila zekarren Rekarte doktoreak, edota bestela tripetatik gaizki zebilen, berdea ere bai baitzen haren azala, zuria bainoago. Errepikatu egin zuen galdea.

—Horazio Beristain hemen al dago, mesedez?

Erantzutea kosta egin zitzaion Horaziori, pasilloetako murmurioetatik urrun, leiarren atzeko bugainbilea more baten gainean hegaka zebilen mandeuli batean baitzeukan itsatsia arreta, udako sargorian zapaldutako txiklela zapatapean itsasten den moduan. Horaziok zerbaiti erreparatzen bazion, kosta egiten zitzaion gero arreta handik erretiratzea. Minutuak, orduak... bizitza osoa eman zezakeen mandeuli haren hegadari begira. Beste ezertan pentsatu gabe gainera. Behin halaxe geratu zen pinu-har bati begira eta kapulu guztia amaitu zuen arte ez zen ohartu ez jateaz, ez edateaz, ez eta bere aitak semearen faltagatik eduki zezakeen kezka. Denboraren zentzua gainontzekoongandik ezberdina baitauka Horaziok, beste gauza asko bezala.

Doktoreak alde egiteko keinua egin zuenean, alboan zeukan atso tiki batek jo zuen ukalondoaz erne zedin eta orduan bakarrik konturatu zen Horazio hura Ospitale Komarkala zela eta 209 jartzen zuen ate zuri haren atzeko gelan, aita zeukala ohe batean etzanda, gaixorik, oso gaixorik.

Eskuan beirazkoa edo plastiko gogor gardenezkoa izan zitekeen kaxatxo bat zeukan Horaziok. Kaxaren barruan, amuarrainak harrapatzeko amu berriak: batzuk euli itxuran eginak eta besteak mitxilikoten tankeran.

—Bai, ni Horazio —esan zuen bugainbilea eta mandeulia zeuden lekuan lagata.

Rekarte doktoreak eskua emanaz diosaldu ondoren, ate hartan barrura laguntzeko erregutu zion.

—Oso gaizki dago zure aita. Egina diogu prostata ebakuntza baina oso zabaldua dauka gaitza. Ez dugu uste gaurko gaua bizirik egingo duenik. Sentitzen dut.

Horaziok, txintik esan gabe jarraitu zion osagileari eta gelan sartzean, aita ikusi zuen berari irribarreka ohetik. Ahuldurik eta zeharo flakaturik zegoen. Hala ere, begietako argi garbia hantxe zeukan beti bezala diz-diz. Negarrez egona zen berrikitan baina malkoen geruzak indartu baizik ez zuen egiten beren begietako indarra. Horaziok eskuetan zeraman amuen kaxa luzatu zion, opari.

—Nik puntera berriak ekarri aita —esan zion Horaziok— iazkoak uhertuta. Hauekin amuarrain gehiago harrapatuko.

—Eskerrik asko Horazio. Eskertzen diat oparia, baina aurrerantzean bakarrik joan beharko duk erre kara —ihardetsi zion aitak distirarik galtzeke— ni ez nauk gauza izango arrantzatarako. Nireak egin dik, baina ez hadi kezka, beti egongo dituk amuarrainak hiretzat. Badakik nola erabili kanabera ur azkarretan eta badakik arraina nola ezkututzen den ertzean, urmaelean.

Horaziok, mahaitxoaren gainean jarri zuen amuen kutxa kristalezkoa eta aitaren esku bat bereen artean hartu eta hala egon ziren biak, isil isilik, arratsaldeak ilundu zuen arte.

Erizain bat argia piztera etorri zenean, gela guztiz zuria zela iruditu zitzaion Horaziori. Zuriak ziren hormak, zuria lanpara bakarraren argia, zuriak oheko estalkiak eta zuri kolorekoa aitaren bisajea ere.

Ospitaleko leihotik ilargirik ez zen zuzenki ikusten ahal baina arbolen atzean, bere argi zuriak oparo erakusten zuen albrizzia handi baten ifrentzua. Tilondo gazte batzuk ere argitzen zituen, hosto zabalak airean, zilarkadak piztuz.

—Hau amaitu duk Horazio —esan zuen aitak ohetik— ez nauk bihar goizera iritsiko. Normala ere baduk behin halako adinera etorritakoan. Asko ikusitakoa nauk ni eta orain akabo denak. Halakoxea duk bizimodu purtzil hau.

Horaziok ezer esan gabe jarraitu zuen, hain baitzegoen aitaren zainetara lotuta zeuden hodi eta tutu luzeetan arre ta korapilaturik. Zintzilika zegoen plastikozko poltsa bateko uraren antzeko likido gardenetan zeuzkan bi begiak: tanto bat eta beste bat, hodietan barrena irristatzen zen ihintza bezala aitaren besoan sartutako horratzeraino.

Aitak ez zuen irribarrerik ezpainetatik kentzen. Begiak semeari so, zorionezko bi malkok egin zion ihes matrailetan behera, bareak bezala, arrasto distiranta utziz.

Bi pena geratzen zaizkidak bihotzean seme —esan zuen, gorputza ohearen alde batera dorpeki mugituz— handiena, hi mundu honetan hain bakarrik lagatzea eta bigarrena, Mosku sekula ikusi gabe hil behar alu hau.

—Bai aita —erantzun zuen Horaziok eta ohartu ere ez zen egin bereen artean harrapaturik zeukan eskuak bat batean ekarri zuen seinale tenteaz.

Hitz haiek izan ziren azkenak, Arnas tiki batez egin zion agur aitak bizitzari. Gauerdia aldera arte ez ziren baina erizainak eta medikuak han gertatutakoaz ohartu: gelako atearen leihatila karratutik barrura begiratzen zuten bakoitzean, mutila ikusten zuten aitaren eskuari oratuta eta zintzilika zegoen poltsa plastikozkoan begiak kateatuta. Normaltasunaren seinaleztat hartzen zuten hori eta horregatik ez ziren ez larritu ez eta ere kezkatu ohean etzanda zegoenaren osasunaz. Horazioren aurpegiak ere ez zuen ezer adierazten: ez onik eta ez txarrik. Gehienez ere jakin-mina antzematen zitzaion: hodi haietan barrena erortzen zen ura, orratz hain estutik nola pasatu ote zitekeen aitaren besoan barnera. Horixe zen Horazioren kezka bakarra.

Lotarako pilula ekartzera etorri zen erizain gazte bat jabetu zen gaixoa hilda zegoela aspaldi eta ezтики kendu zuen hildakoaren eskua Horaziorenetatik.

—Zure aita hil egin da —esan ziotenean, Horaziok ez zuen ezer esan baina une batez, plastikozko hodiedatik erretiratu eta leihoetatik haratago, arboletan ilargiak sortzen zuen elurrezko argitan ezarri zituen begiak, tilondoaren hostoen kulunkan.

Goizeko bostak aldera eraman zuten gorpua tanatoriora eta eguna argitzearekin batera, Ospitaleko atarian erre zizkion begiak udaberriko eguzki zakarregiak Horaziori. Jakaren poltsikoan, amuen kaxatxo zeukan eta eskuetan urre koloreko arrautza handi metalezko bat. Ostrukaren arrautza zirudien baina ez zen halakorik, arrautzaren barruan, aitaren errautsak baitzeuden gordeta, aitak berak nahi izan zuen bezala.

Dena konpondu zen azkar, aitak hil aurretik esan baitzien sendagileei ez zuela hiletarik eta elizkizunik nahi. Berak mundu honetan gehien maite zuena, bere seme Horazio zela eta hari emateko bere errautsak lehenbailehen. Metalezko arrautza ere berak aukeratu zuen Ospitalean bueltaka zebilen katalogo zahar batetik. Katalogoaren azalean, Funeraria el Reposo jartzen zuen letra handitan. Eta beherago, letra gorri-gorritan, Gran surtido en urnas funerarias, nichos y panteones. Horazioren aitak bederatzigarren orrialdean zetorren urre-koloreko arrautza handi hura hautatu zuen; ez merke eta ez garesti, nahikoa duina iruditu zitzaion bere errautsak gordetzeko. Berak ez zuen sekula nahi izan elizkizunik eta herriko kanposantuan leku bat betetzea ere alferrikako begitantzen zitzaion. Emaztea hil zitzaionean ere, ez zuen inolako zerik egin eta haren errautsak, mendi lili baten ipurdian zabaldu zituen zimaurgai. Ezagunen baten hiletara joaten ziren bakoitzean entzun izan zion Horaziok

—Hori ere hobeto legoke lili artean, zerraldo estu horretan baino.

Horaziok etxerako bidea hartu zuen. Kanean zihoala, jendeak begiratu egiten zion aldean zeraman arrautzari. Zer zen ezagutzen zutenek harriduraz behatzen zioten eta arrautza zer zen ez zekitenek, ostera, kuriositatez.

—Gorringo ederrak aterako dituk hor barrutik, Horazio —esan zion txantxetan Nikolas taxistak, arrautza haren barruan Horazioren aita zenaren errautsak egon zitezkeenik pentsatzen jarri ere egin gabe.

Etxera heldu zenean, lehenengo gauza Hendaiarako autobusen ordutegiari begiratzea izan zen. Gero, urdin koloreko bere gela argitsuan,

motxila koskor batean sartu zituen, inolako harrapatarik gabe, barruko arropa garbiak, bizarra egin eta ahoa garbitzeko tresnak, pasaportea, liburu bat, zapata pareak, barruko arropa eta beroki lodi bat. Ondoren aitak oparitu zion larruzko karpeta batetik (hantxe gordetzen zituen Horaziok garrantzizkoak iruditzen zitzaizkion paper guztiak), plastikozko txartel berdexka bat atera zuen. Kreditu txartel bat zen, gizon kaskodun baten irudia dakarren horietako. Beti atzeko poltsikoan eramaten zuen karteran jarri zuen, itsasgoren eta itsasbeheren taularen ondoan:

—Plastikozko txartel honekin, Horazio, zeruak eta lurrak geureak dituk — esanda zion behin baino gehiagotan aitak—. Magia hutsa zirudik baina egia duk: ezer ez ziagok American Express honek eros ez dezakeenik. Hemen eta Pekinen, halako bat baldin badaukak poltsikoan, ez haiz sekula galduko seme.

Motxila txikian eroso sartzen zitzaizkion bidaiarako gauza guztiak berari. Ez zuen maleta handirik behar bidaiatzeko, aitak errana baitzion behin eta berriz, pertsonak ez duela asko behar ibili eta bizitzeko, nahikoa duela gizakiak beharrezko gauzetatik ale bat eta bakarra edukitzearekin.

—Zoratu egiten dituk Horazio, zoratu. Buru bakarra edukita, zertarako behar ote du gaurko jendeak irrati edo telefono bat baino gehiago? Gela bakoitzeko tresna ezberdin bat diate gaur egunean, mugitzearen alferrez. Zertarako, dozena erdi bat beroki eta jaka? Zertarako lau guardasol, bizpahiru orrazi, lauzpabost zapata pare, sei edo zazpi kolonia klase, bat eta bakarra aski denean? Zoratu egin dituk Horazio, eta preso zeudek zorrari lotuta, behartsurik pobreena bainoago.

Horaziok jakin ez zekien ezer baina senak esaten zion aitak arrazoi zuela, izan ere, haren alboan ez baitzuen berak sekula ezeren faltarik sumatu. Denetarik zeukaten beti etxean, dela ogi edo odolki, haltzari edota zernahi: gauzaren bat amaitu edo apurtu bezain pronto ekartzen zuten beste bat, etxeke ataritik hurbilen zegoen dendatik.

—Aberats izateko modu bakarra ziagok seme: beharizan txikia izatea. Asegaitzak gaituk berez gizakiok, eta ez dik sekula ikasiko askoak asetzen askia.

Hendaiako geltokira iritsitakoan, Amerikan Express berdea erakutsi zion kristal lodi baten atzean txartelak banatzen zituen emakume betaurrekodun bati:

—Paris —esan zion Horaziok eta emakumeak TGVRako txartela luzatu zion, merçi monsieur batekin batera.

Itxaron beharra zeukan beste ordu t'erdian eta geltoki pareko denda batera sartzea erabaki zuen sabeleko zuloa berdintzeko. Boulangerie jartzen zuen letra gorritan eta beirazko eskaparatean mota guztietako ogi eta gozokiak ageri ziren kolorezko zirimolatan bilduta.

Motxilatxoa bizkarrean eta ostrukaren arrautza urrezkoa zirudien hura galtzarbean sartu zen atetik barrura. Ez zekien nola hitz egin behar zuen, espainolez ala frantsesez, baina errazenari helduta, egunon esan zuen lehendabizi eta gero behatzez txokolate tableta batzuk seinalatuz.

—Txokolatea —esan zuen.

—Oui, monsieur —erantzun zion zerbitzari gazte batek, haietako tableta more bat luzatuz.

—Beste bat ere bai —esan zuen Horaziok, berriro txokolatea seinalatuz, hainbestekoa baitzen bere gosea.

—Oui monsieur —eta bigarren tableta luzatu zion gazteak.

—Ogia ere bai — gehitu zuen azkenez eta txartel berde plastikozkoa jarri zuen Horaziok mostradore gainean dena ordaindu asmoz.

Ez zion oso ondo ulertu dendariari baina bazirudien ezetz esaten ziola, txartel hark ez zuela denda hartan balio. Txanponez ordaindu behar ziola, alegia. Eskuak poltsikoetan sartu eta mota guztietako diruak atera zituen orduan Horaziok: pezetak, liberak, florinak, dolarrak, markoak, ezkutuak, rubloak... denak nahasian. Aitaren bildumakoak ziren, burdinazko kutxatila batean gordetzen zituen haietakoak. Aitak honez gero ez zituela beharko eta, berarentzat hartuak zituen badaezpada.

—Beste zenbaitzuk postalak ekarri eta bildumatzen dizkiate, Horazio. Nik neuk nahiago dizkiat txanponak. Ez ziagok hauek bezalako oroigarririk. Paperezko moneta hauetako bakoitzean ziagok bilduta herri bakoitzaren itzala. Batzuk txikiak dituk, koloredunak edo nahiko gezak, herri bakoitzak bereak, Horazio. Batzuk idazle handiaren irudiak jartzen dizkiate, besteek erregeak edo gudariak, baina billete guztiek diate gauza bat eta bera berdina: sutan erretzen direla erraz, txiribiria bezala. Libra itzak, bada, beti suaren adiskidantzatik, Horazio.

Dendatik itzuli zenean, inor gabe ageri zen geltokiko zizailu batean eseri eta txokolateari ekin zion antsiaz: ez zen bere gorputz handia jan gabe bizitzen zekien horietakoa. Ez zuen nahi berarentzat Animarteren zaldiari gertatutakorik. —Hamazazpi egun, Horazio, hamazazpi egun egin zian Animarteren zaldiak batere jan gabe eta pozik eta harro ibili huen egun haietan Animarte gizagaixoa, "nire zaldiari jan gabe bizitzen erakutsi zioat" esanez. Baina hemezortzigarrenean, ez zian gehiago begirik ireki eta zaldirik gabe geratu zuan betirako Animarte. Jan gabe egotea ondo ziagok, batez ere beste erremediorik ez bada, baina ez hadi sekula hamazazpi egun baino gehiagoko barauetan sar, seme.

Oroitzapen horietan zebilela, maletaz kargaturik zetorren jendearen artetik eta juxtu trenbideetan tren baten tututzarra entzun zen unean, arratoi zakur zahar beltz bat hurbildu zitzaion. Begibakarra zen eta okerra, zatarra benetan. Katuekin borrokan maiz ibiltzen den horietakoa. Txokolate zati bat luzatu zion Horaziok berari behaka geratu zitzaionean. Lurrik ere ez zuen ukitu txokolate zatiak, airean harrapatu baitzuen gozokia zakurrak, mitxilikota hegalaria balitz bezala.

—Hi ere gose Turko— esanez jarri zion izena txakurrari Horaziok eta ogi zati eder bat jaurti zuen jarraian airera.

Zakurraren isatsak zigarrokin pare bat mugitu zuen lurretik bazterrera ogia jateko bere ekinaldian baina usaindu eta gero ez zion jaramonik egin. Ez zitzaion ogirik gustatzen antza. Berriro geratu zitzaion so Horaziori eta honek txokolate zati berri bat bota zion hegaka, txakurrak salto batean harrapa zezan. Bien artean ahitu zuten, antsia ikaragarritz, dendan erositako guztia.

Bozgorailu dindongari batek adierazi zuen partitzeko tenorearen berri eta Horaziok Paris entzun bezain azkar, andenerako bidea hartu zuen zakurra atzetik zuela.

—Turko, zu ez trenean. Ni Mosku. Zuk ezin trenean sartu.

Motxila txikia eta urrezko arrautza erraldoia goiko apalean jarri eta gero, hutsik zegoen eserleku batean eseri zen Horazio. Trena baino gehiago autobusa edo zine baten zatia zirudien bagoi hark: eserleku dotoreak, albo batean bi elkarren ondoan eta bestean hiru jarrita. Baina, apenas bidaiaririk gabe, berehala etorri zitzaion txartelaria hura bere lekua ez zela esanez. Lau ilara aurrerago behar zuen eseri, leihoaren ondoko eserleku batean. Zineetan egiten duten bezala lagundu zion bertaraino gizon uniformedunak eta bere lekuaz jabetu zenean, hanketan trabaturik, bere eserlekupean ezkutaturik, zerbait bazela sumatu zuen Horaziok. Begiratu eta hantxe ikusi zuen kizkurtuta, Turko beltza.

—Turko, zu nola sartu? —galdegin zion Horaziok eta zakurraren begia piztu eta buztana dantzan hasi zen ahots ezaguna entzundakoan.

Lotan egin zuen bidaia guztia. Gau osoa ospitalean esna, apenas aire garbirik sartzan ez den lekuan, edonor nekatzeko modukoa da eta. Ohartu ere ez zen egin tren hark zeraman abiaduraren ziztuaz. Bozgorailu dindongariak erne zuen berriro, Parisa iritsiak zirela esanez. Orduantxe jabetu zen Horazio ez zegoela bakarrik. Bere alboan, atzean eta aurrean, beste bidaiari batzuk ere baziren eta guztiek begiratzen zioten amorrus bezala, apaletatik ekipaiak hartzeko zutitu zirenean. Horaziok berehala pentsatu zuen horretarako zegoen arrazoia: bera mutil handia zen, oso handia, ia bi metroko erraldoia eta kiloak ere ehunetik gora. Sendoa eta galanta, ikaragarria. Bere zurrungak ere, derrigorrez, handiak izan behar. Ikaragarriak.

—Ez hadi kezkatu Horazio. Hik zurrunga galanta egiten duk, bai, baina hori ez duk txarra. Langak txirinka egitea bezala duk hori —esan zion aitak, behin baino gehiagotan —beste batzuk, zurrungarik ez baina lorik ere ez ditek behar bezala egiten. Hik kanporuntz botatzen duk zarata eta beraiek barruan ditek bakean uzten ez duen piztia, kurrinka eta intzirika. Ez hadi horregatik sekula estutu, seme, eta egik beti lo lasai.

Pariseko geltokia Hendaiakoa bezalako hogeitaz gogor zuten gutxienez eta apur bat kostatu zitzaion Berlinerako trenak nondik irteten ziren txartel elektronikoetan ikustea. Hainbeste jende atzera eta aurrera, birritan erori zitzaion ia aitaren errautsen ontzia lurrera. Turko ere galduta zebilen hainbeste hankaren artean eta nahikoa lan izan zuen bi metro handi zen gizonkotearen ibilerari jarraitzen.

—Berlin —esan zuen Horaziok takillan kreditu txartela luzatuz batera.

—Le passeport, s'il vous plait monsieur.

Txokolate eta ogi gehiago erosi zuen geltoki barneko dendaxka batean eta falta zitzaion ordubetea iragaiteko, bazter batean jazarri eta bere liburu bakarra atera zuen motxilatik. Azal gogorreko liburu bat zen, orain egiten ez diren horietakoa, zeharo gastatua zegoena. Kanpoaldeko ilustrazio eta letrarik ere ezin zitekeen garbi irakurri ia. Baina bai, Horacio Quirogaren Los cuentos de la selva izeneko liburua zen.

—Hara Horazio, txikia duk oso hire burua eta ez zaik ganbara estu horretan liburu bat baizik kabituko —esan zion, oraindik kozkorra zela, bere aitak —. Nahikoa duk, ordea, liburu bakarrarekin baldin eta arretaz irakurtzen badakik. Hire tokaio eta izenkide izan zen Quirogak oihan eta basoko animalia

eta landareetan ikusi zian gizakiak jakin beharreko guztiak eta liburu honexetan idatzi zizkian. Ez duk inon hemen askatzen ez den korapilorik topatuko.

Jakintsua zen oso Horazioren aita. Hainbestetan irakurri ostean ere, berria begitantzen zitzaion pasarteren bat aurkitzen baitzuen beti eta bertako animalien portaeretan betiro aurkitzen zuen ordura arte oharkabean iragandako kezkaen batentzat erantzuna. Ez zezakeen jakin zenbat aldiz irakurria zuen liburua, batzuetan hasi eta buka, beste batzuetan atzekoz aurrera eta zenbaitetan atal solteka ere irakurtzen baitzuen lehenbizi hemen eta gero han mokoka eginez. Izen berriak ere ikasi behar izan zituen ipuinak ulertzeko eta hala, graziarik handiena sugedorriak egiten zion, Quirogak yará deitzen zuen harekek. Gauza da, sekula ez zuela beste libururik irakurtzeko beharrik sumatu eta kezka berriren baten zatzada sortzen zitzaionean, lehentxeago edo beranduxeago, dortokaren pausoan edota pumaren ahoan, berehala topatzen zuen erantzunen bat Quirogaren liburuan. Gainera, ahots goraz irakurtzen zuenez, kantuak iruditzen zitzaizkion azkenerako irakurgai haiek, ipuinak baino gehiago.

Trena ezberdina zen oraingoan: pasillo luzearen alde batera, gortina loretsuek babesten zituzten kaiola moduko leku itxiak. Turkok eserlekupean ezkutatzea lortu zuen berriz ere. Biak bakarrik zihoazen sei lagunentzako zen espazioan. Arin igarotzen ziren kristaletatik harat behiak, arbolak eta ibaiak. Mendirik gabetan, noizik behin, etxe multzoka ikusten ziren urrutira eta lekuaren izena geltoki txikietako hormetan letra handi eta urdinez idatzita. Ezin baina izenik ikasi; irakurtzeko betarik ere ez zuen ematen halako zitzuak. Hiri handi batera hurbildu ahala trena apalagotzen hasi zenean bakarrik irakurri ahal izan zuen Bruxelles, egurrezko letretan idatzita.

—Hau Bruselas, Turko —esan zion lo zegoen zakurrari, eta begia zabaldu gabe, belarrien mugimenduarekin jakinarazi zion Turkok baietz, esandakoa entzun ziola eta hura Bruselas zela, dudarik gabe.

Teilatu ugari bistatzen zituen hiri hartan andrezko lodi eta irribarretsu bat sartu zen bere konpartimenduan. Horaziok jaramon gehiegirik egin gabe, hankak luzatu eta liburua bazterrean lagata, erdi-lotan joatea erabaki zuen. Halaxe egin zuen tiketariak iratzarri zuen arte:

—Verzeihung, wir treffen in Berlin ein. Wenn Sie weiter nach Warschau wollen, können Sie im Zug bleiben, aber dann werden Sie zwei Stunden noch warten.

—Ni, Mosku —erantzun zion Horaziok, begi biak zeharo zabalik. Irribarrea handitu egin zitzaion emakume lodikoteari, konturatua baitzen bere pareko mutil handi hark ez ziola tutik ere ulertu txartelak saltzen zituenari.

—Sehr gut, dann gebe Ich Ihnen einen Fahrtzuschlag bis Berlinen.

Gizonak makina txikitxo bat atera zuen poltsikotik eta paper zulatu bat luzatu zion.

—175 Mark.

Horaziok eskuetan hartu eta paperari begiratu arren ez zuen deus ulertzen. Bazter batean, ordea, Berlin ikusi zuen idatzita eta bestean 175 zenbakia. Moskura ez baina Berlina eskaintzen zion billetea onartzea erabaki zuen. Plastikozko txartela atera zuen poltsikotik eta etenik gabe luzatu zion gizonari.

—Danke, esan zion honek eta makinatxoan sartu ostean, sina zezan beste paper bat eta boligrafoa jarri zizkion eskutan.

Horaziok bere Hatxe handia idatzi zuen eta haren gainean borobil bat egin zuen lehendabizi eta gurutze bat ondoren.

—Danke —erantzun zion berriro gizonak— eine gute Reise wünsche ich Ihnen.

Horazio paperezko agiriari geratu zitzaion beha. Lauki txiki baten barnean, 96-04-07 ikusi zuen idatzita eta jarraian, lehenbizi hatz bat eta gero ondoren beste bat atereaz, kontatzeari ekin zion:

—Bat, Urtarrila. Bi, Otsaila. Hiru, Martxoa. Lau, Apirila.

1996 garren urteko Apirilaren zazpia zen beraz. Bere urtebetetze eguna. Oker ez bazebilen, hogeita lau urte beteko zituen orduantxe eta pena baten oihartzuna piztu zitzaion barruan: hemezortzi urte egin zituen egun beretik, Maritxuren gela dotorera eramaten zuen urtero aitak, halako egunean.

—Hire ama zenak, ez zukeen sekula halakorik ulertuko, Horazio, baina heu ere, ni bezalaxe, gizon osoa haiz. Sar hadi horko gela horretan eta ez hadi kezka. Maritxuk bazekik eta hire berri.

Oroitzapen maitagarria zuen Horaziok Maritxurekin. Lepo inguruan zeukan bufanda lehendabizi eta arropak kentzen zizkion ondoren. Erabat biluztutakoan, ohe ertzean eserarazi eta bi eskuez igurzten zion eztiki hanka arteko haragi puztua.

—Hi haiz hi erralde bikaina Horazio —esan ohi zion orduan irribarrez— eta ez ostiraletan etortzen zaizkidan pitomotx ezindu horiek.

Gau osoa jotzen zuten elkarrekin. Behin eta berriz katramilatzen zituzten bien haragiak eta hala egoten ziren indarberritu eta berriro maite lanetan hasi arte. Maritxu gogo biziz egoten zen zain urteroko apirilaren zazpia noiz etorriko, halako mutil ugari eta osasuntsurik ez baitzuen sekula ezagutu, bere maitale andanaren artean. Zakar samarra bai baina, garbia eta indartsua. Erabateko zezena.

Apirilaren zortziko goizeko bederatzietan, aitak jasotzen zuen Horazio Maritxuren etxetik.

—Nahi duzunean ekar ezazu berriz semea, Anton —esaten zion aitari— halako mirariak ez zaizkiguk eta egunoro gertatzen. Ez dago datorren urtera arte zertan zain egonik.

Aitaren aurpegian irriño harro bat sumatzen zuen orduan Horaziok eta bizkarrean taup-taup egiten zion aitak harrotasunez.

—Goazemak Iriarterenean gosaltzera —esan ohi zion gero— indarrak berritzeko ez ziagok hango txingar eta arrautza pareta bezalakorik.

Oraingoan jai, ordea. Ez aitarik, ez Maritxurik, ez Iriartenekorik... burutazio horiek tristatuta, kristalaren kontra atsedendu zuen aurpegia. Urteroko ohitura hura gabe geratzeak, garrantzizko zerbait egin gabearen zantzua sortarazi zion eta batez ere bere urtebetetze eguna ospatu gabe uztearen hutsunea. Maritxu oroituko zen bai, Horazion eguna zela, baina beste inor ere ez mundu guztian. Bakar bakarrik zegoen bizitza honetan. Turko bakarrik zuen lagun baina nola adierazi zakur bati urtebetetze bat zer den?.

Ohiturak gorde egin behar direla esan zion behin aitak, bestela gizakia haizeak eraman dezakeela luma bezala.

—Aingurak dituk ohiturak seme. Horiek gabe edonon erorita buka dezakeen etxaferua baizik ez duk pertsona. Ohiturak lotzen dik lurrera gizakia.

Trenaren dardara guztia biderkatu egiten zuen leihoko leiarrak, mugimendu guztia kilipa bihurtzeraino. Konturatu ere egin gabe, aurpegiko azaletik sartzen zitzaion kilikilia, lepagaineraino iritsi zitzaion lehenik, gerriraino gero eta piztu egin zitzaion haragitan Maritxuren oroitza. Handitze ozen hark galtzak leherrarazi behar zizkiola zirudien eta halaxe harrapatu zuen lo gozoak, Maritxuren azal leun guztiak gogoan.

Andre lodiak esnarazi zuen: bere eskuez ferekatzen zizkion izterrak eta gorago. Horaziok harriturik begiratu zionean,

—Ich Anna — esan zion emakumeak irribarrez, begietan argi arraro bat zuela.

Horaziok, bera Horazio deitzen zela esan bezain pronto, andreak gortina loreduak mugitu zituen kristal guztiak estaltzeraino eta maratilarri eragin zion ate hartatik inor sar ez zedin.

Barrea galdu gabe, arropak eranzten hasi zen eta Horaziori bi bular handi eskaini zizkion. Bularren gailurretan, bi tontor ezti, arrosa kolorekoak.

Turko zakurrak ez zuen txintik egin Berlina iritsi bitarte. Bi gizakien arnastuak entzuten zituen bakoitzean, arretaz mugitzen zituen belarriak batera eta bestera. Behin bakarrik laga behar izan zuen bere zokoa eta pareko eserlekuen azpira pasatu, Annaren belaun lodia bere estalpera etorri zen batean.

Bozgorailuak Berlina iristeko hamar minutu eskas falta zirela esan zuenean bakarrik egin zuen intziri txipi bat. Annak orduan, jantzi, leihoko gortinak zabaldu eta ileak orraztu zituen poltsan zekarren ispilu ttiki baten aurrean. Horaziori ere maitekero orraztu zion ilea eta esku trebez lotu zizkion alkandorako botoi guztiak, bat banaka. Azkeneko musua eman zion gero, ezpainen erdi-erdian.

Maritxurekin bezala... baina hobeto iruditu zitzaion Horaziori. Annak haragi gehiago zeukan, ertzik gabeko gorputza zen berea, dena borobil eta gogokoago zuen hori, Maritxuren giharren tentetasuna baino.

Trenetik jaitsi zirenean, aufiederseen esan zion Annak eta plastikozko zakuto bat luzatu zion Horaziori. Barnean, mahaspasez eginiko pastel handi bat zegoen, laranja usainekoa. Haretxi begira, Horaziok ez zuen ikusi Anna non barrena desagertu zen jendartean.

Parisen baino jende gutxiago zebilen hala ere Berlingo geltokian eta agian horrexegatik nabarmentzen ziren gehiago bertako polizia zapelak.

Turkoren beldurretan zebilen Horazio, bai baitzekien ez zela oso bidezkoa zakurra hala bidaiatzen ikustea. Hartaraino ere iristen zen bera. Zer egin behar zuen, baina?

Argi gorrizko gezi baten ondoan, Moskau irakurri zuen letra handi-handitan idatzita eta gezi haretxen aginduari hasi zitzaion segika.

—Ni, Mosku —esan zion takillakoari baina hark polizia lekutik iragan behar zuela lehendabizi iragarri zion.

Motxila, aitaren errautsen arrautza metalezkoa eta Annaren pastela, hiruak, iragan zien polizien izpi tresnaren baitatik.

—Whath is this? —galdegin zion ingelesez beraletako batek urre koloreko arrautza handia seinalatuz.

—Nik ez ulertu —erantzun zion Horaziok, besterik ezinean.

Eskutan hartu zuen orduan poliziak arrautza eta bi bira emanaz, ireki egin zuen. Hauts apur batek gainezka eginez, zikindu egin zuen poliziaren jaka. Horazio azkar hurbildu eta hatz puntez saiatu zen biltzen uniformeko zikina, hauts guztia ahurrean batu eta ondoren arrautzara itzuliz.

—Hori nire aita— esan eta arrautza itzul ziezaiola eskatu zion poliziarri keinuka.

Hala ere, droga edo antzeko zerbait ote zen jakiteko, behatz bat sartu zuen Poliziak hautsetan eta sudurrera eramanda lehendabizi eta ezpainetara ondoren, higuin aurpegi itzel batez itzuli zion azkenean arrautza Horaziori. Berehala konturatu zen, ezereen gusturik ez zeukan irin antzeko hura, gizon baten errautsa zela. Algaraka amaitu zuten gainerako poliziek, lankidea presaka eta korrika ahoa garbitzera alboko komun batera abiatu zenean.

—Ni, Mosku— esan zion berriro Horaziok takillakoari eta agiria jasotakoan, bazter bateko zizailuan esertzea erabaki zuen. Gose zen berriro eta Annaren pastelari zati bat kenduko zion.

Egokitu bezain azkar, Turko agertu zen ertz batetik eta hankapean jarri zitzaion, motxila eta arrautzaren artean. Pastel zati bat luzatu zion Horaziok eta zakurrak, beste behin ere, eskerrak eman zizkion isatsa dantzatzuz. Horaziok ezin zuen ulertu nondik eta nola lortzen zuen zakur zarpailak beti bere ondoan egotea. Egia esan, berari berdin zion baina aukeran nahiago zuen Turko bidelagun izatea, bakarrik bidaiatzea baino.

Gaua iritsia zen aspaldi eta euria ari zuen geltokiko kristalen harunzkaldean tarrapatata. Horaziok, Quirogaren liburua zabaldu zuen tuntunean erdialdetik, eta ohartu baino lehen harrapatuta geratu zen Amazonia aldeko garo eta piztia artean adimen apurra pausatuz.

Moskowrako trenak, Berlinerakoaren berdina zen. Berbera zela esango zuen Horaziok baldin eta lorezko gortinen lekuan, marrazko beste batzuk ez baleude. Gainontzekoan, eserlekuak, konpartimenduak, maletentzako apalak eta beste guztiak, berdin-berdinak ziren. Baita usaina ere: bi trenetan Maritxuren gelako usain berbera gogorarazten zion lurrina zegoen pasilloetan, Frizard markakoa. Euliak akabatzeaz gain, basoko usain freskoa pizten zuela irakurri zuen behin Horaziok spray potoaren gainaldean.

—Ez hadi fida usain horietaz seme, zikina estaltzeko baizik ez dituk izaten eta. Garbitu ezin denari bakarrik botatzen zaizkiok horrelakoak. Astoaren mantari kolonia egitea bezala duk hori.

Oraingo konpartimenduan ez zegoen Annarik. Hiru mutiko gazte zeuden, beltzaranak hiruak, elkarren artean hizkuntza guztiz arraro batean egiten zutenak. Beraien jardun guztien artetik hitz bakarra egin zitzaion ezaguna Horaziori: Budapest. Barre egin zuten halako mutil handiaren atzetik halako txakur txiki eta aldrebesa sartzen ikusi zutenean.

Nongoak ote ziren hiru bidaiari haiek? Ilea orraztu-orraztua zeukaten eta maiz ateratzen zuen bakoitzak, norberak berea, orrazi txiki bat atzeko poltsikotik. Burua olloz bustita zeramatera zirudien: ile lodi-lodia eta distiranta, pikaz igurtzita bezala. Usaina ere hiruek zuten ezberdina eta handia. Hiru lurrin ezberdin, zein baino zein azukretsuago biltzen ziren gelatxo hartan, Frizard usainarekin.

Ez zen fio Horazio mutil haien itxura ilunarekin, arropak ere halakoxeak baitzituzten, azala bezain beltzak. Eskuturrean oster, zilarrezkoa zirudien kate bana zeramaten, izena jartzeko moduko xafla edukitzen duten horietakoa. Beraietan luzexkaenak, bi letaginak urrezkoak zeuzkan eta etengabe erakusten zituen Horaziori begira irribarre egiten zuen bakoitzean.

Akaso sartu bezain azkar aitaren arrautzari hiru bidaideek egindako begiratua izango zen zelatan jarri zuena baina, badaezpada ere, begi bat itxi eta bestea irekita lokartzea erabaki zuen. Gauerdia aspaldi joana zen gainera eta trenaren kanpoko aldean, kristaletatik haruntz, ez zen deus ikusten ahal, noizik eta behin zitzu batean iragaiten ziren kolorezko ipurtargiak bezalako distirak ez baziren.

Turko ere ez zen fio bidelagun haietaz eta hankapeko ezkutalekuan, ordura arte ezagutzen ez zion egonezina nabaritu zion Horaziok zakurrari.

Annarekin gertatutakoaz hasi zen pentsatzen eta oharkabean, bere lotarako erraztasunak harrapatu eta lo geratu zen, harri koskor bat bezala. Erdi zabalik behar zuen begiak etsi eta berehala utzi zion bekainari erortzen. Zurrungaka hasi zen, bi minutu igaro baino lehen eta ametsetan, aita zenarekin amuarrain arrantzan zebilela etorri zitzaion. Sallobente errekan zebiltzan biak. Aitak hiru amuarrain otarran eta berak zazpi,

—Hau duk marka Horazio— esaten zion aitak errekaen beste aldetik — neuk erakutsi diat arrantzan eta hala ere, heu haiz ni baino gehiago. Arrantzurako dohain bereziren bat badaukak hik, seme. Bestela ez ziagok hau ulertzerik.

Zortzigarren amuarraina kateatu eta ur azalera atera behar zuenean, zakurraren zaratak esnatu zuen. Zaunka hautsia zen, estua.

Hiru mutilak ostruka arrautzarekin ikusi zituen. Motxila ere eskutan zeukan letagin urrezkodunak. Horazio bultzaka hasi zen eta zapi bat bezala jaurti zituen mutiletako bi pareko eserleku gainera. Gainera zihoakien bere gorputz osoaren pisuarekin. Ez zien ez aitaren errautsik erooten lagako, baita bertan ukabilka hasi behar bazuen ere. Hirugarren bidaiariak, ordea, Turko ostikoz lurrera bota eta laban zuri bat jarri zion lepoan gure mutilari. Horaziok supituan geratu zuen bere abantada.

—Ez ziagok ezer, ezertxo ere ez seme, hiltzea merezi duenik —etorri zitzaion gogora aitaren aholku zaharraren oihartzuna— Hintzena, haizena eta hintekeena, guztiak eramaten dizkik berarekin Heriok. Egiok ihes beti, baita ezetz uste baduk ere.

Beste biek ere laban txiki bana atera zuten Horazio geraturik ikusitakoan. Lehen orrazia ateratzen zuten poltsiko beretik eskuratu zuten labana. Horaziori lasai egoteko eskatu zioten eskua zabaldutako keinuz.

Horaziori begiak busti egin zitzaizkion, arrautza huraxe baitzen munduan berari gehien ardura ziona. Aita hilda gaizki, oso gaizki, baina aitarik batere

gabe ezingo luke bizi. Haren errautsek behinik behin, bidelagun zituen eta beraiei esker behar zuen bakoitzean etortzen zitzaion aitaren gogoramena. Geldirik zegoen Horazio, estatua bat bezala, zintzurreko labanaren izuz. Eztarriaren erdi-erditik irten zitzaion

—Hau nire aita— arrautza seinalatzen zien ahala.

Urrezko letaginak zeuzkanak, bi bira eman zizkion arrautzari eta barnekoa ikusitakoan, lurrera bota zuen errauts guztia nazkaz.

Ondoren harrapatata irten ziren hiruak trenaren pasillo ilunean barrena, metalezko arrautza eta Horazioren motxila txikia eskutan zeramatzatela. Bozgorailuak hurrengo geltokiaren albiste eman zuen, Praha, eta trenabiadura gutxitzen hasi zen, geltokietara iristen zen bakoitzean egiten zuen eran.

Horaziok poltsikoetara eraman zituen eskuak lehenik eta behin. Bai, hantxe zeuden Pasaporte eta American Express gordetzen zuen kartera. Mota guztietako txanponak ere aurkitu zituen elkarren artean kiribilduta aurreko patrikan. Besterik ez, ordea, Annak emandako pastel zati bat eta bazterrean zabalik geratutako Quirogaren liburua izan ezean.

Pastela plastikozko zorrotik atera eta erdia Turkori eman zion ahora. Ondoren ahokada batez jan zuen berari zegokion beste erdia. Dena irentsitakoan, makurtu eta aitaren errautsak hasi zen biltzen. Ez zen asko, pitxar bat betetzeko lain edo.

Apurka-apurka, eskutada bat batzen zuen bakoitzean, plastikozko zorrotxora botatzen zuen hautsa arretaz, ez baitzeukan beste non gorderik. Dena batutakoan, zorrotxoa eskutan hartu zuen apalean gordetzeko asmotan. Zulo bat. Zulo txiki-txiki bat zeukan zorroak eta handixek egiten zuen ihes aitaren errautsak, hondarrak erloju erromatarretatik bezala. Zer egin, non gorde asmatu ezinean, Horaziok libre zeukan eskuan jasotzen zuen errauts iheslaria eta eskua bete zitzaionean, ahora eraman eta irentsi egin zuen hautsa. Ez zeukan gustu txarrik. Hobe esan, ez zeukan gusturik. Ez gozo eta ez gazi, ez garratz eta ez mikatz.

Hiru eskutada irentsi zituen halaxe, bata bestearen atzean. Hautsak, ordea, zintzurreko lehor izugarria eragiten zion.

Ezin zuela hala jarraitu erabaki eta nola-hala, korapilo txiki bat egin zion zakutxoari muturretako batean. Gainezka egindako hautsa, Quirogaren liburu zabalduan jaso zuen eta hauts hura ere irentsi egin zuen Horaziok, gainontzekoa bezala. Poltsa erdikada bat baino ez zuen betetzen geratzen zen errautsak.

Gusturik gabekoak ziren bere aitaren errautsak, bai, baina itoko zen egarriz hala jarraitzekotan. Ezin zuen aita gehiagorik irentsi. Polboroiak ematen duten lehorra zen berak ezagutzen zuen haren antzekoena. Hondarra irenstea bezain lehorra gertatzen zen aitaren ondorio bakar hura irentsi beharra. Azkenerako lasaitu zen hala ere, geratzen zitzaion aita hautsa liburuaren ondoan goiko apalean egokitu zuenean.

Prahako geltokian ez zen inor ikusten goizaldeko ordu haietan. Geltoki bertako langileak, pare bat bidaiari eta eskale batzuk Coca-Cola makina gorri baten epelera kizkurtuta.

Trena abiatu baino lehen, bi emakume handi sartu zitzaizkion konpartimenduan. Batak hiru urteko haurra zeraman besoetan lo, besteak jaio berri bat, oraindik ere bularrekoa.

Horaziorik ez zien diosala ulertu baina zekartzaten poltsak apaletan jartzen lagundu zien. Hain handia izanik, hori ez zen nekea berarentzat.

Turko isilik eta kizkurtuta zegoen eserlekupean, oraindik ere hiru lapurren kezkan. Berehala erreparatu zioten emakumeek zakurrari. Horaziori zerbait galdetu zioten eta honek

—Hori Turko, ni Horazio. Zuek isilik— esan zien behatz zuta ezpainen aurrean jarririk eta bi haurrak lotan zeudela ohartaraziz.

Tutu luze bat jo zuen trenak eta abiatu eta gutxira, lo geratu ziren bi emakumeak. Horaziorik fardeletako batetik ageri zen ur botila batean zituen preso bi begiak. Halaxe lotaratu zen bera ere, ur hartatik edateko baimenik eskatzeko ausardiarik gabe eta, are gutxiago, loak hartu berri zituen emakumeak esnatzeko asmorik gabe.

Ez zekien lehorraldia edo umearen negarra izan ote zen. Biak seguruenera. Emakumeetako bat ere itzarrita zegoen bera esnatzerako. Bular haundi bat atera zuen jertsea jasorik eta umeari jarri zion ezpainetan isil zedin. Haurrak edoski ahala, Horazio zenbat eta egarritzenago berari begira. Andreak irribarrez begiratu zionetako batean, Horaziorik behatza jarri zuen ur botila zegoen aldera —Ura bai? — galdegin zion emakumeari ahots beheraz eta gupidagarritz.

Baietz erantzun zion emakumeak buruarekin eta Horaziorik dzanga-dzanga hustu zuen botila erdi instante batean. Lehorteke euri izan zen hura. Sekula ez zuen ezagutu halako egaririk. Eskerrak eman eta gero, aitaren errautsak zituen plastikozko poltsari behatu eta lo geratu zen berriz ume edoskitzailea eta emakumea bakean lagata.

Goizaldeko argiarekin esnatu zenean, bi emakumeak txurtxurrean zeuden eta haurrei garbiketa egiten. Trapuzko fardelak bota zituzten leihoetatik eta berri batzuk ezarri zizkieten Horaziori arretaz begira zeuden haurrei.

Umeetan zaharrenak aingerua zirudien bere begi pitzatuekin. Horaziorik ederki ezagutzen zituen halako umeak, behin baino gehiagotan egokitu baitzitzaion berari halakoen ondoan egon beharra,

Ez Horazio, hi ez haiz horiek bezalakoa —esan zion behin bere aitak— horiek Down sindromedunak dituk. Ez hobea eta ez txarragoa, hiri gertatzen zaiana beste gauza bat duk. Hara Horazio, erditze lanetan hil huen hire ama eta sufrimendu hartatik etorritakoa haiz hi. Beti haur izateko jaioa haiz. Gorputza zahartutakoan ere, haurra izango haiz hi. Haurrek bezala ikusiko dituk gauzak eta haurrek bezala egingo duk amets, baita hirurogei urterekin ere.

Kezkatu egiten zuen horrek Horazio. Berak besteak bezalakoa izan nahi zuen. Hazi, eskolara joan eta bizi, auzoko guztiak bezala. Behin aitari aitortu zion bere kezka baina zalantza izpirik gabe erantzun zion honek,

—Hara seme, ni urte batzuk bizi izandakoa nauk eta ez ziagok haurtzarora bezalako garairik. Profita ezak, beraz, eta ez ibili helduon kezka alferrikakoetan.

Parean zituen bi emakumeak laguntzeagatik zutitu eta berriro jaitsi zituen haien tramankulu guztiak goiko apaletatik. Hori baino gehiago, pasilloan

barrena ere berak eraman zituen guztiak irteeraraino, esku bakoitzean bi eta hiru fardel batera helduta. Geltokira jaisten laguntzeko trena noiz geldituko zain zegoela, ezinegona sartu zitzaion supituan eta azkar batean egin zuen pasilloetan atzera, emakumeen esker ona jasotzeko astirik hartu ere egin gabe.

Konpartimendura iritsitakoan lasaitu egin zen: hantxe zeuden bai liburua eta baita errautsen poltsatxoak ere, baina trenaren mugimenduagatik edo, beste zulo berri batetik hautsa erortzen zen goiko baldatik eserlekuaren gainera hegaka. Horaziok eskuaz harrapatu ahala, irentsi egiten zuen aita. Azkenean, poltsa zulatua liburuaren gainean jartzea lortu eta eten egin zuen isuria.

Ez zen apenas errautsik geratzen poltsan, pare bat eskutada betetzeko adina baino ez. Annaren pastela gordetzeko balio izan zuen plastikozko zorrotto hura ez zen, agi denez, batere kalitate handikoa. Korapilo berri bat egin baino lehen, beste erabaki bat hartu zuen geratzen zitzaion aita apurra zuloetatik ez galtzeko asmotan: ezkerreko poltsikoa hustu, txanpon eta abarreko guztiak eskumakora pasatu eta han, bere izterraren berotan, aitaren azken errautsak gorde.

Halaxe egin zuen Horaziok. Lehendabizi azpikoz gora jarri zuen poltsikoa tarratarik ba ote zeukan ikusteko. Ondoren, arreta handiz, errauts guztiak sartu zituen bertan eta azkenik, plastikozko poltsa miazkatu zuen errauts ale bat bera ere gal ez zedin.

Atsedean hartzeko tenorea iritsia zitzaion eta harri zaku bat bezala utzi zion gorputzari erortzen eserlekuaren gainera. Azpian zegoen Turko izutu egin zen kolpearekin eta pareko eserlekuaren azpira joan zen ihesi, isatsa makur-makur eginda.

Aurki zen Moskow. Zergatik ez zekien baina irudikazio hori zeukan Horaziok tximinia handi batzuk ostertzean ikusi zituenetik. Leihoko kristaletan bekokia pausaturik, kanpo aldera begiratzen zuen Horaziok eta hango gauzek erakusten zuten argia berak ezagutzen zuenaz bestelakoa zela deliberatu zuen.

Trenetik begiratuta abiadan iragaiten ziren etxeak eta parajeak, griskarak eta ilunagoak ageri ziren normalean baino. Goizeko eguzki bizitan ere, koloreak ez ziren hainbeste ernetzen. Zintzilikatutako arropetako gorri, hori eta urdinek, ohikoa baino indar gutxiago zeukaten. Laino geruza antzeko batek indargabetzen zituen bazterretako margo guztiak.

Pentsamendu horietan zegoela, trena abiadura geldotzen hasi eta orduantxe ikusi zituen Horaziok Moskoweko lehenengo teilatuak. Ez zitekeen esan zein koloretakoak ziren, argi apalekoak izan arren, kolore guztietakoak baitziren: arbelaren beltzekoak, zink herdoilduraren berdekoak, teilaren gorrikoak eta baita buztinaren okre kolorekoak ere. Adabakiz egindako hiria zirudien Moskowek trena zetorren lekutik begiratutakoan.

Geltokira jaitsi bezain azkar, Horazio harrিতuta geratu zen jendearen begiradekin. Mundu guztia haserre bizi zela zirudien eta egunkariak saltzen zituen kiosko baten inguruan jolasean zebiltzan umeez ere ez zuten irribarrerik begietan. Noizbait alaitasuna galdutako pertsonak begitandu zitzaizkion Horaziori.

Esku bat jarri zioten bizkarrean eta Passport, please entzun zuen atzeko aldetik. Horazio bera besteko polizia zen hala zuzendu zitzaiona. Aitzeko

poltsikotik pasaporte a teratzen hastearekin batera, zitzu bizian egin zuen ihes Turkok poliziaren hanka artetik.

—Niet —esan zuen garrasika eta beste hiruzpalau polizia ere saiatu ziren irteerantz tximista bezala ihesi zihoan txakur itsusi hura harrapatzen. Alferrik baina.

Zarataka egin zioten Horaziori errusieraz. Hitzik ulertu ez arren, Horaziok bazekien gizon haiek galdegiten ziotena: zakur hura nondik etorria zen, berea ote zen baimenik ba ote zeukan txakurra Errusiara sartzeko... Horaziok burua mugituz eta behatz azkarraren keinuaz esan zien,

—Turko ez nirea. Turko oso berea.

Tutik ulertu ez zuten poliziek joaten laga zioten azkenean, batez ere Horazioren erruz pasaporteen ilara gero eta handiagoa ari baitzen egiten. Ilararen atzealdetik andre batzuk eta larruzko sonbreirua zeraman agure suspertu batek, kexu oihuak egin zituzten, seguru asko, jendea horrenbeste denboran zain edukitzeko eskubiderik ez zegoela esanez.

Geltokia atzean laga bezain azkar, motxila galdu izanaren damua piztu zitzaion Horaziori. Hotz egiten zuen Moskowen, hotz sekulakoa. Apirileko urtarrila zirudien, geltoki pareko putzu guztiak izoztuta ikusita. Ez zegoen gora begiratu beharrik arbolak ikusteko: izotzetan islatzen ziren urki garaien adar oraindik hostailaz jantzi gabeak eta usoak ere putzuko izotzaren ispiluan ikusten ziren, zeru grisean hegaka.

Kale luze bat hartu zuen Horaziok noraezean. Kale zurrunbilotsua. Txirrindua berriz eta auto zaharrez josia. Bigarren bidegurutzera heldu baino lehen, Turkoren itzala sumatu zuen bere hanken ondoan. Makurtu eta lehenengo aldiz egin zion igurtzia zakurrari, Moskow bezalako hiri handietan ezagun bat edukitzea beti baita atsegin,

—Zu ez galdu Turko. Nola etorri niregana?

Zakurrak isatsaz erantzun zion bera ere pozten zela treneko lagun zaharra berriz ikusteaz.

Harrizko irudi handi bat ikusi zuten kalearen bukaeran erorita edo botata. Gizon aurpegi zabal bat zen, bizarrez hornitua. Gehiago hurreratu arren, hizki zirillikoetan zegoenez idatzita, Horaziok ezin izan zuen irakurri noren omenez eraikia zen oroitarri bikain hura. Bere atzean, harrizko gizon-emakumeak zeuden hauek ere apurtuta. Emakumeak igitaia zeukan eskutan. Gizonaren eskua gorputzetik bereizita zegoen eta eskuan mailu handi bat zeukan.

Eskuak hotziturik zeukan Horaziok. Poltsikoetan sartzeko orduan, ezkerrekoa ezin izan zuen gorde errautsaren kulpaz, harekek betetzen baitzion poltsikoko espazio guztia. Behatz muturrak bada ere babesten saiatu zen eta horretarako errauts apur bat irentsi zuen beste behin ere. Lekua egin behar zuen eskuak poltsikoetan sartzeko, izoztuko zen bestela.

Ia ez zen aitarik geratzen jada. Baina berdin zion horrek Horaziori. Apur bat geratzen zitzaion bitartean, dena baleuka bezala zen. Gainera, poltsikoan ez zegoena hantxe zeukan, urdailean.

Halako batean plaza izugarri zabal batera iritsi ziren. Ipuinetako etxe borobilak ziruditen hango palazio handiek. Urre kolorekoak zituzten batzuk teilatuak eta muskerraren kolorekoak beste batzuk. Autobus handi batzuk

zeuden alde batean pilatuta baina apenas igarotzen zen autorik eta jenderik plazaren erditik. Horaziok sekula ez zuen ikusi halako leku handirik eta arretaz erne zitzaizkion bi begiak eraikuntza mardul haietan zehar. Turko bitartean, usainka ari zitzaion emakume baten kate batetik zintzilik gurutzatu zitzairen zakur handiago bati.

Plazan egonaldi bat egin eta gero aitari leku hura gustatuko ote zitzaion jarri zen pentsatzen, trenetik jaitsi zenetik, Horaziok ez baitzuen entzun aitaren ahotsik. ezin jakin, beraz, Moskow eta plaza eder hura gogoko ote zituen.

Palazioen atzealdean, konifera handi batzuk parke baten ataria adierazten zuten. Haraxe zuzendu zituen pausuak Horaziok, zakurra zuela atzetik.

Han ere oroitarri handi bat zegoen lurrera erorita. Gizon buru-soil baten irudia zen, okotzean bizar apur batekin. Luze egon zitzaion begira Horazio pareko eserleku batetik. Turkok bitartean, hanka jaso eta txiza egin zion harrizko gizon haren buru eroriari.

Bat batean, tristatzen hasi zen Horazio. Munduan zein bakarrik zegoen jarri zen pentsatzen eta parke handi hartan zer egiten zuen ezin asmatu, hotzez dardarka, ezkerreko eskua poltsikoan sartu eta aitaren azken errautsak atera zituen.

Tinko geratu zen eskuan zeukanari begira. Egoera hartara iritsita, bidaiari guztiko nekea bizkarrean eta apirileko hotza hezurretan, instante batean irentsi zituen aitaren azken hondarrak.

Gero zegoen lekuan bertan geratu zen bi eskuak poltsikoetan sartuta. Ez zekien zer egin ez eta nora jo ere. Malkozalea ez bazen ere, negar egiteko zorian zegoen. Hain bakarrik eta hain galdurik ez zuen ikusi bere burua sekula. Hartan zegoela, sabelaren erdi-erditik eta eutsi ezindako zurrumbilo ozen batek bultzaturik etorri zitzaion ahots garbi bat. Bere aitarena zen.

—Ez hadi trista gizona. Ederra duk Moskow baina hotz egiten dik hemen. Goazemak orain La Habanara —esan zion.

Irribarre zabal-zabal bat jarri zitzaion aurpegian Horaziori.

—Hi eta ni aireportura —esan zion zakurrari.

Isatsa mugituz, baietz esan zion honek, prest zegoela bera ere berriro bidean jartzeko.